



Arartekoaren 2019NI-202-19 Ebazpena, 2019ko irailaren 10ekoa. Horren bidez, Usansoloko herritarrak banandu eta Galdakaoko udalerrri independente bihurtzeko ekimenari lotuta egindako jarduna amaitu da.

Aurrekariak

1. Usansolo Herria Elkarateak eta Usansolo Herria Hautesle Elkarateak (aurrerantzean, UH) aurkeztutako kexa jaso du Arartekoak. Elkarate horiek uste dute Galdakaoko Udalak ez duela jardunik egin eta oztopoak jarri dituela Usansoloko herritarrek banantzeko eta udalerrri independente bihurtzeko duten interes legitimoa dela-eta.

Kexagileek Arartekoari azaldu diotenez, osoko bilkuran hartutako erabakien kontra nahiz Usansolon bizi diren herritarren nahiaren aurka jokatzeko ari da udala; herritar horiek, hain zuzen, behin baino gehiagotan eta gehiengo handiz adierazi izan dute Galdakaoko udalerritik banandu nahi duela.

Kexagileen aburuz, udalaren jokabidea foru arau hauetan xedatutakoaren aurkakoa da: 9/2012 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Bizkaiko Lurralde Mugapenei buruzkoa, eta 6/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, haren aldaketa partzialari buruzkoa.

Zehazki, esan dute Usansolo banantzeko prozedura, lehen aipatutako foru arauan jasotakoa, udalak adostu zuela erakunde horrek 2016ko uztailaren 27an onartutako "ibilbide orriaren" arabera. Horiek horrela, uztailaren 29ko ebazpen bidez, prozesuaren lehenengo fasea egiteaz arduratuko zen Batzorde Paritarioa izendatu zuen alkateak. Hori guztia, 2015eko apirilaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz.

Batzorde Paritario horren egitekoa banantze-espeditatea (lehenengo fasea) hasteko osoko bilkuraren erabakia prestatzea zen, 9/2012 Foru Arauaren erregulazioaren arabera (bigarren fasea). Azkenik, osoko bilkurak banantze-espeditatea onartu ondoren, herri-kontsulta abian jarriko litzateke, eta, handik, banandu eta udalerrri independente bihurtzeko erabakia (hirugarren fasea) aterako litzateke, edo ez.

Kexa aurkeztu duen elkaratearen iritziz, jarraitu beharreko prozesua zehaztu zenetik bi urte eta erdi igaro badira ere, udalak ez du ibilbide-orri hori abian jarri; alderantziz, udal-gobernua eta alkatea ahalik eta oztopo gehien jartzen ahalegindu dira Usansoloko herritarren helburua lortzeko prozedura adostua susta ez dadin.

Horrenbestez, topatzen ari diren oztopoen adibide gisa, udalak herriko bederatzi auzotako bizilagunen artean egin nahi izan zuen herri-kontsulta aipatu dute. Adostu gabeko kontsulta zen, eta ez zen beharrezkoa jarraitu



beharreko prozedurari begira, baina udalak hori egiteko baimena eskatu zion Ministroen Kontseiluari. Baimen hori ukatu egin zaio, kontsulta horrek ez dituelako betetzen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 71. artikuluan jasotako betekizun formalak.

Laburbilduz, kexa aurkeztu duten elkarteek Arartekoaren esku-hartzea eskatu dute, prozeduraren egoeraren berri izan dezan eta udalari egoera desblokea dezan eskatzeko, bere garaian adostutako baldintzetan.

2. Arartekoak kexan adierazitako kontuak aztertu zituen, eta, horren ondoren, informazioa eskatu zion Galdakaoko Udalari. Udal horrek honako hau erantzun zigun, 2019ko maiatzaren 13ko idazki bidez: Zehazki, udalak 2016ko uztailaren 27tik egindako jarduketa guztien kronologiaren berri eman du. Egun horretan, Batzorde Paritarioaren ibilbide-orria adostu zen, 2015eko apirilaren 27an onetsitako mozioa betez. Orri horretan jasotako azken jarduketa 2019ko maiatzaren 2koa da; horren bidez, UHk aurkeztutako mozioa izapidetzeko onartu zen, osoko bilkurari jakinarazi zitzaion, eta banantze-espeditentea hasteko erabakia hartzea proposatu zen. Mozio horrek ez zuen aurrera egin, eta udal-idazkaritza horrek ohartarazi zuen bazitekeela hura deuseztatzea.

Momentu honetan, udalak jakinarazi du, auzokako kontsulta egin ondoren, Usansoloko gunea geografikoki mugatzeko moduan dagoela, eta horrek aukera emango duela hurrengo hilabeteetan osoko bilkurari jakinarazteko prozesua hasiko dela foru arauaren arabera. Horretarako, aurretik, lurraldea mugatzeko beharrezkoak diren lan teknikoak esleitu behar dira.

Hurrengo atalean, gogoetei buruzkoan, kexan azaldutako kontuen inguruan jasotako erantzunaren alderdirik garrantzitsuenak jorratuko dira.

Gogoetak

1. Kexaren xedearen esparru juridikoa foru-arau hauetan dago ezarrita: 9/2012 Foru Arauan, abenduaren 5ekoan, Bizkaiko Lurralde Mugapenei buruzkoa, eta 6/2015 Foru Arauan, martxoaren 25ekoan, haren aldaketa partzialari buruzkoan.

Interesatzen zaizkigun ondoretarako, 9/2012 Foru Arauaren 27. artikulua ezartzen du udalak aldatzea prozedura bat dela, besteak beste eragin dezakeena udalerrri bateko lurralde zati bat banantzea udalerrri independente bat eratzeko.

Ondore horietarako, udalak bere erantzunean zehaztu du banantze kasua dela hizpide duguna, hau da, banandu beharreko lurraldearen zatia ez dela aurretik udala edo elizatea izan —izan ere, hala balitz, desanexioa izango litzateke—.

Nolanahi ere, ikuspegi juridikotik, 9/2012 Foru Arauak segregazio-kontzeptuan (35.bis artikulua) biltzen ditu desanexio kasuak, eta ez da bereizketarik egiten hura lortzeko jarraitu beharreko prozeduran eta bete beharreko baldintzetan.

Udal-mugarteak aldatzeko prozedura hastea 9/2012 Foru Arauaren 36. artikuluan dago zehaztuta, eta honako hau da:

“Udalerriak aldatzeko prozedura osoko bilkuraren erabaki bidez hasiko da; erabaki hori udaleko legezko zinegotzien gehiengo osoz hartu behar dute. Erabaki horretan, gutxienez ere, hauek adierazi behar dira: lurralde-mugak, ukitutako azalera, zergatia eta legezko justifikazioa. Horrez gainera, udalerrri interesdunen zerrenda eta eraturako Batzorde Mistoko ordezkarien izendapena jasoko ditu; ordezkari horiek alkatea, 2 zinegotzi eta udal idazkaria izango dira.

Udallerri zati bat dagoeneko egon dagoen udalerrri baten sartzeko banantzen bada edo udalerrri independente bat eratze desanexionatzen bada, banandu nahi den auzoko hiru ordezkari izango ditu Batzorde Mistoak, azken udal hauteskundeak emaitzen arabera izendaturik.”

2. Aipatutako esparru juridikotik ondorioztatzen da orain arte egindako jarduketak guztiak prestakuntza-egintzei dagozkiela, eta horiek, hala badagokio, bide eman behar dutela banantze-espeditatea hasteko 9/2012 Foru Arauaren 36. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Toki-erakundeek nork bere burua antolatze ahalarekin bat, prestakuntza-fase horretan kokatzen da Batzorde Paritarioaren sorrera, eta haren egitekoa da prozedura abiarazteko bide ematen duen proposamena prestatzea.

Udalak bere erantzunean adierazi du gobernu-taldeak eta alkatetzak une oro errespetatu dituztela edozein udal-organotan hartutako erabakiak, eta arau-esparrua ere bete dutela. Horren harira, azaldu du osoko bilkurak hiru erabaki hartu dituela banantze-prozesuari buruz eta Bozeramaileen Batzordeak 2016ko uztailaren 27an hartu zuen “ibilbide-orria” izeneko akordioari buruz — dokumentu horretan, EAJk eta UHk batera adostutako gutxieneko puntuak ageri dira—. Udalaren iritziz, agiri horrek gidatu ditu orain arte, hau da, “1.4. Muga geografikoak, kausa eta legezko justifikazioa” punturaino, jarraitu beharreko urrats guztiak.

UHren iritziz adostu ez zen eta beharrezkoa ez zen kontsulta dela-eta, udalak esan, du kronologian aipatutako eta webgunean eskuragarri dauden dokumentuei erreparatuta egiazta daitekeenez, Batzorde Paritarioan adostuta dagoela kontsulta, hura osatzen duten 6 lagunetatik 4ren aldeko botoa jaso zuelarik, gehiengo osoa, beraz. Proposamen hori Jasangarritasunerako eta Herritarrek Parte Hartzeko Informazio Batzordean aurkeztu zen. Batzordeak beharrezko irizpena aurkeztu zion Udaleko osoko bilkurari; han, gehiengo osoz



onartu zen 2018ko otsailaren 6ko osoko bilkuran (ez zuen jaso Ministroen Kontseiluaren baimenik), eta, horren ondoren, formula alternatiboa gehiengo soilez onartu zuen 2019ko martxoaren 20ko osoko bilkurak.

Arartekoak ez ditu sakon aztertuko, aurretiazko fase horretan, (2015eko apirilaren 27ko osoko bilkurako erabakiaren arabera) banantze-espeditentea hasteko osoko bilkurako erabakia prestatze aldera egin ziren izapide eta jarduketa guztiak. Hala ere, azpimarratu behar da batzorde horren lana zela proposamen bat prestatzea, eta proposamen hori ahobatez edo gehiengoz onartu behar zela, kide anitzeko organo ororen funtzionamendu-arauekin bat. Bistakoa da egoera hori ez duela eragin Batzorde Paritarioa osatzen duten kideek ikuspegi desberdinak izateak proposamenaren xede diren lurralde-mugaketari eta ukitutako azalerari buruz, hori ondorioztatzen bada ere UHK 2019ko maiatzaren 2ko osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioa ezetsi izanetik.

Nolanahi ere, 9/2012 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz banantzeko lege-prozesua hasi ahal izateko, banantze-proposamenaren lurralde-mugaketa ezagutu behar da, eta han zehaztuta egon behar dute zein diren lurralde-mugak eta ukitutako azalera. Ondore horietarako, udalaren ustez, ez zen ezagutzen Usansoloren mugaketa, 1980ko hamarkadaren amaieran hasitako banantze-espeditentea bertan behera utzi zelako 90eko hamarkadaren hasieran, eta mugaketa-proposamena ez zelako ofizial bihurtu, Bizkaiko Foru Aldundiak aitortu duenez. Hori dela eta, pentsatzen dugu legitimoa dela Batzorde Paritarioak gehiengo osoz onetsitako proposamena, hau da, auzoetako bizilagunei kontsultatzea zuzenean, Usansoloko gunea zeri esaten zaion zehaztu dezaten.

Udalak jakinarazi du, auzokako kontsulta egin ondoren, Usansoloko gunea geografikoki mugatzeko moduan dagoela, eta horrek aukera emango duela hurrengo hilabeteetan osoko bilkurari jakinarazteko prozesua hasiko dela 9/2012 Foru Arauaren arabera. Jo beharra dago proposamen hori Batzorde Paritarioan jorratuko dela, eta, horren ondoren, osoko bilkuran aurkeztuko dela, markatutako "ibilbide-orria"ri jarraituz.

Laburbilduz, alde batera utzi gabe batzuek eta besteek, banantze-espeditentea abiarazi ahal izateko gutxieneko betekizunen eta espeditente horren edukia inguruan eman dituzten argudioak, ibilbide-orriak eskatzen du proposamena Udaleko osoko bilkurari aurkeztea, dagozkion izapideak egin ondoren, eta, horretarako, ezinbestekoa da proposamena onartzea eta haren edukia legez-xedapenekin bat etortzea.

Horiek horrela, Arartekoak ezin du ondorioztatu udalaren jarduna 9/2012 Foru Arauan xedatutakoaren aurkakoa denik, ez eta udala osoko bilkuraren erabakien eta adostutako ibilbide-orriaren aurka jokatzeko ari denik ere. Izan ere, banantze-prozedura hasteko edozein proposamen onartzeko, gutxieneko



adostasuna behar da, eta udalbatzako kideen eskumena da gehiengo osoz erabakitzea banantze-espedita hastea bidezkoa den ala ez.

Ondorioa

Arartekoak amaitutzat jotzen du kexa honetan azaldutako kontuaren harira egin duen esku-hartzea, aipatutako gogoetekin bat, esan dugunez ez dugulako hauteman erakunde honek beste esku-hartzerik egitea justifikatzeko moduko irregularitasunik.